

Ziklo honen amaiera bueltan dago

Badaramagu pare bat urte krisitik ateratzen; datu makroekonomikoek hori erakusten dute, batez ere Barne Produktu Gordina (BPG) erreferentziatzen aukeratzen badugu. Horren adibide bat dira Euskal Ekonomisten Elkargoak sei hilero argitaratzen duen Ekonometroan lortutako emaitzak: 2014ko abendutik hona egin diren ia inkesta guztietan, galdetutako ekonomisten %40k egoera hobetuko dela dio; beste %45-50ek, berdin mantenduko dela. Enplegu arloan, aldiz, egoera ez da kolore berekoa. Hala ere, *Errezesio handia* deituriko krisi hau amaitzeaz dago?

Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuak aztertuz, hausnarketak ez du batere poztasunik sorrarazten. Har dezagun erreferentziatzen 2008. urtea, krisia hasi zenekoa. Orain dela bederatzirteko BPG maila berreskuratu dugu. Pertsona enplegatuen kopurura ez gara heldu, %90ean gaude, ordainketak eta lan orduak ere %90ean geratu dira. Hortaz, gaur egungo hazkundearen datuak tentuz hartzeko modukoak dira.

Gainera, adituek diote ekonomi hazkunde honek epemuga duela. Roberto Ruiz-Scholtes, UBS Espainia konpainiako Estrategia Zuzendariak esan du 2019an egoera ekonomiko oker batera bueltatuko dela Espainia, eta hedape-



Endika Alabort Amundarain

EKONOMIALARIA

@autogestia

Brexit-aren ondorio ekonomiko eta Batasuneko ekonomiaren dinamikak krisia berpizteko indar nahikoa izan dezakete 2019an

nez, gure lurraldea ere. Europan hazkunde moteltzen ari da eta badirudi hazkundearen zeinu positiboari eutsiko diotela Europar Batasuneko kideek; hala ere, *Brexit-aren ondorio ekonomiko eta Batasuneko ekonomiaren dinamikak krisia berpizteko indar nahikoa izan dezakete 2019an.*

Orduan, 2014-2016 artean zergatik eman da berreskurapen ekonomikoa? Daniel Albarracín hitzetan, krisiaren errebote-efektua eman da, enpresa eta lanpostu ugari desagertu direlako: enpresa kopuru murriztago batek merkatuaren zati handiago bat hartzen du. Aldi berean, energiaren prezioa (petrolio, batez ere) jaitsi eta gastu publikoaren murrizketa eten da, ekonomian eragin positibo bat izan du. Esportazioak ere handitu dira, ezaguna denez, bertoko industriaren parte garrantzitsu bat Europa Erdialdeko herrialdeen industria osagarria baita. Herrialde horien egoera hobera doanean, geure industriarenak antzeko zeinua eraman ohi du.

Europar Banku Zentralak egoera lagundu du, interes tasak murriztean, finantziarioa erraztuz, merkatuz. Enpresa transnazional eta haien filialek diru merke horri onura atera diote, euren jardura ekonomikoa sustatuz. Hau da gure esportazioen indarra azaltzen duen elementu garrantzitsu bat, enpresa multinazionalen finantzaketa merkeak erraztu duena.

Laburbilduz, ekonomiak hamarkada bat galdu du eta horrek azaltzen du hazkunde ekonomikoa. Baina, aldi berean, begi-bistan denez, berreskurapen honek iraupen motza dauka. ■

Ongi etorri
Senpereko aintzirara

Maiatzaren 14ean
Herri Urratsera

MARCOS
okindegia

*Benetako
aitzinako ogia*

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

**TIPI-TAPA
BAGOAZ!**

BIZITZA
JASANGARRI
BATERAKO
ERALDAKETA

www.tipitapabagoaz.info